

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

407/2024 Foru Agindua, uztailaren 15eko. Jendaurrean jartzea Arabako Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriko II. Planaren (2025-2034) hasierako testua

Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko Garraioaren I. Plan Zuzentzailea egin zuen 2010ean. Tresna horrek mugikortasuna eta garraioa hobetzeko zenbait jarduera ezartzeko eta gauzatzeko balio izan du, eta plana egin zen garaiko mugikortasun beharrei eta aurreikuspenei erantzun die. Haren helburu nagusia zen errepideko garraio publiko erregularreko sare bat diseinatzea, hiriarteko autobus lineen emakida berriak lizitzeko, eta, horrela, garraio publikoaren kuota handitzeko, ibilgailu pribatuarenaren aldean, bai eta efizientzia handitzeko ere, bai ingurumenari, bai ekonomiari dagokionez.

Plana egin zenetik gaur egunera arte igaro den aldian, mugikortasunak bilakaera nabarmena izan du, neurri batean lurraldearen beraren faktore endogenoengatik (aldaketa demografiko eta ekonomikoak) eta, beste alde batetik, faktore exogenoengatik, hala nola Covid-19 pandemiak mugikortasun ohituretan izandako ondorioengatik, trenbide garraioaren liberalizazioagatik, mugikortasun zerbitzuak zerbitzu gisa sartzeagatik eta merkataritza elektronikoaren zabalkunde handiagatik.

Hamahiru urte igaro dira dagoeneko Arabako Lurralde Historikoko Garraioaren I. plan zuzentzailea onetsi zenetik, eta hartan jasotako helburu garrantzitsu asko bete dira: Emakida esparru berri bat garatu zen, eta horrek asko handitu du bai eskaintza, bai eskaria herriarteko lineetan. Eskualdeko garraio zerbitzu berri bat ere ezarri da, eta horrek bidaiarien kopurua biziki handitzea ekarri du. Horrez gain, Arabako mugikortasun agintaritza eratu da, eta aurrerapen nabarmenak egin dira teknologiaren, elkarreragingarritasunaren (BAT, Barik eta Mugi txartelak) eta tarifa sistemaren alorrean.

Alavabus eta eskualdeko garraio zerbitzuko lineetako zerbitzuak aldundiak emandako kontratu publikoen babesean ematen dira. Kontratu horien epemuga 2025etik 2033ra bitartekoa da.

Kontuan hartu behar da zer nolako arau eta estrategia testuinguruan kokatzen den egun mugikortasunaren plangintza eta antolamendua, eta, beraz, aintzat hartu behar dira estatuko mugikortasun jasangarriaren lege proiektua eta autonomia erkidegoko mugikortasun jasangarriaren legea, zeinak joan-etorriak egiteko modu berriak, lankidetzat tresna berriak eta zerbitzuak ematen laguntzeko teknologia berriak bultzatzen baitituzte.

Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legeak etorkizuneko arau honen printzipioak eta helburuak aplikatzeko tresnak ezartzen ditu, eta, zehazki, lurralde historikoetako mugikortasun jasangarriko planak.

Aurrekari horien eta arau testuinguruaren ondorioz, ezinbestekotzat jotzen da orain Arabako Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriko II. Plana idaztea, 2025-2034 aldirako garraioaren antolamendua orientatzeko politika eta jardunbide berriak ezartzeko, betiere garraio publikoa sustatu eta hobetzeko dagoeneko egindako bideari jarraituz.

Horretarako egindako dokumentuak garraio publikoaren erabilera sustatzeko neurriak jasotzen ditu, baina baita garraio bide aktiboak lehenesteko eta ibilgailu pribatuen mugikortasuna kudeatzeko beste neurri batzuk ere. Haren edukiak mugikortasun jasangarriaren arloan jarraitu beharreko ildo estrategikoak eta jarduketak ez ezik, zeharkako alderdiak ere jasotzen ditu; izan ere, garraio bideen eta haiei lotutako azpiegituren kalitate estandarrei eragiteaz gain,

mugikortasunerako eskubide sozial unibertsalari eutsi behar dio, eta mugikortasun eraginkor eta lehiakorra bermatu behar du, ezinbestekoa baita Araban aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, kontuan hartuta lurralde oreka bultzatzen duela eta eragina duela ingurumenean, funtzio-namenduan, gizartean eta ekonomian, eta hori guztia genero ikuspegia txertatuta egin behar da.

Mugikortasun jasangarriko plan berriak 2025etik 2034ra bitarteko indarraldia izango du, eta, hala, herriarteko garraio zerbitzu publikoak berritzeko beharrezko denbora izango da eta, bestalde, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren 11/2023 Legearen 15.5 artikulua lurralde historikoetako mugikortasun planetarako ezarritako 10 urteko epea beteko da.

Lege horren 15.3 artikulua honako hau ezartzen du:

“Lurralde historikoetako mugikortasun jasangarriko planak lurralde historiko bakoitzean eskumena duen erakundeak zehazten duen onspen-prozeduraren arabera egin eta onartuko dira, eta parte-hartze publikoa bermatuko da.

Prozeduran, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean garraioaren arloan eskumena duen sailak nahitaezko txostena eman beharko du Euskadiko mugikortasun jasangarriko planarekiko adostasunari buruz, hilabete bateko epean.”

Beraz, Arabako Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriko II. Planaren hasierako proposamena jendaurrean jarri behar da, administrazio publikoek beren jardunean bete behar duten gardentasun printzipioa betetzeko, bai eta mugikortasun jasangarriaren plangintzan zuzenean edo zeharka eragiten duten gaiak buruzko erabakiak hartzeko prozeduretan herritarrek benetan eta eraginkortasunez parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko ere.

Horri dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 83. artikuluan ezartzen du jendaurrean jartzeko aldi bat erabaki ahal izango dela, eta dagokion aldizkari ofizialean iragarki bat argitaratu. Argitalpen horretan, agiria herritarren eskura egongo den lekua adierazi behar da, eta, nolahi ere, baliabide elektronikoen bidez egon behar du hala eskatzen duten pertsonen eskura. Alegazioak aurkezteko epea ere zehaztu behar da, eta epe hori ezin da izan hogeitun egunetik beherakoa.

II. planaren hasierako testua garraioaren arloan eskumena duen euskal autonomia erkidegoari ere igorri behar zaio, 11/2023 Legearen 15.3 artikuluan adierazitako nahitaezko txostena egin dezan.

Bestalde, Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 6.3 E) artikulua, zeina landa ingurune politikaren instituzionalen helburu sektorialekin buruzkoa baita, helburu horien artean jasotzen du honako hau: “Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea eta, horretarako, errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetzea, eta landa eremuetako biztanleriaren egoerari eta beharrezkoen egokitzeko zaizkien sistema alternatiboak sustatzea, mugikortasun jasangarria bultzatuz”.

Horri dagokionez, aipatutako lege testuaren 13.3 artikulua honako hau xedatzen du:

“3. EAEko administrazio orokorrak zein foru-administrazioek sustatutako plan, programa eta ekimen instituzionalak onartu aurretik, instituzio sustatzailean landa-garapenaren arloko eskumena duen sailak txosten loteslea egin beharko du, erregelamenduz ezartzen den prozeduraren eta artikulua honetan xedatuta dagoenaren arabera, baldin eta plan, programa eta ekimen horiek lege honetan aurreikusitako landa-eremuei eragiten dieten helburu orokor edo sektorialekin zerkusia badute.”Txosten hori bi hilabeteko epean egin behar da, gehienez ere, hala xedatzen baitu artikulua horren 6. apartatuak.

Horiek horrela, II. plan zuzentzailearen hasierako testua Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduren Sailari igorri behar zaio, aipatutako txostena egin dezan.

Ondoren, jendaurrean egoteko epea amaitu eta, alegaziorik eta txostenik izanez gero, horiek aztertu ondoren, Arabako Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriko II. Planaren behin betiko testua onetsiko da, Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak 2024ko uztailaren 11n egindako txostena aztertuta, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatua naizen aldetik ditudan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Jendaurrean jartzea Arabako Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriko II. Planaren (2025-2034) hasierako testua.

Bigarrena. Ebazpen hau eta haren eranskina argitara dadila agintzea bai Arabako Foru Aldundiaren web orrian (<https://irekia.araba.eus/eu/-/plan-movilidad-sostenible-2025-2034>), bai ALHAOn, eta bi hilabeteko epea ezartzea alegazioak egiteko, ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena. Ebazpen hau eta haren eranskina Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean garraio arloan eskumena duen sailari jakinaraztea, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren 11/2023 Legearen 15.3 artikulua araberan egin beharreko nahitaezko txostena egin dezan.

Laugarrena. Ebazpen hau eta haren eranskina Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailari jakinaraztea, Landa Ingurunearen Garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 13.3 artikulua araberan eman beharreko txostena eman dezan.

Bosgarrena. Administrazio bidean behin betikoa den ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bai eta egoki jotzen den beste edozein errekurtsu ere.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 15a

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatua
JON NOGALES PRIETO

Mugikortasun eta Garraio zuzendaria
PATRICIA PÉREZ AGUIRRE